

Datorrena 2015 jardunaldia. Interneteko berrikuntza teknologikoak

2014/11/28

Jardunaldia Internet & Euskadi eta Comunica720-k antolatzen dute Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Mondragon Unibertsitatearen laguntzarekin. Programak askotarioko gaiak landuko ditu: 4.0 joerak, Gauzen Internet, sarearen historia eta prespektiba eta ekintzaitasun digitala.

Datorrena 2015ek interneten eta teknologien berrien eremuan datorren urtean gerta daitezkeen joera eta berritasunak aurreratuko dizkigu.

Hizlarien artean Miren Illaramendi egongo da, Telekomunikazioetan goi mailako ingeniaria eta Goi Eskola Politeknikoko irakasle eta ikerlaria. Bere hitzaldian 4.0 joerak eta sistema txertatuak landuko ditu.

